



FUNDACION BANCARIA **kutxa**
kutxa BANKU FUNDAZIOA

FUNDACIÓN BANCARIA KUTXA- KUTXA BANKU FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

FUNDACION BANCARIA KUTXA-KUTXA BANKU FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

AURKIBIDEA

I. KAPITULUA	3
FUNDAZIOAREN ERAKETA.....	3
1. artikulua. Izena, izaera eta eremua.....	3
2. artikulua. Helbidea.....	4
3. artikulua. Iraupena.....	4
4. artikulua. Arau-erregimena.....	4
5. artikulua. Nortasun juridikoa eta ahalmena.....	4
II. KAPITULUA.....	5
HELBURUAK, JARDUERAK ETA ONURADUNAK.....	5
6. artikulua. Helburuak.....	5
7. artikulua. Jarduerak.....	5
8. artikulua. Onuradunak.....	6
III. KAPITULUA	6
FUNDAZIOAREN GOBERNUA	6
9. artikulua. Fundazioaren gobernua.....	6
1. ATALA. PATRONATUA	6
10. artikulua. Izaera.....	6
11. artikulua. Patrono-karguaren izaera.....	7
12. artikulua. Patronatuaren osaera.....	7
13. artikulua. Patronoa izateko betekizun orokorrak.....	8
14. artikulua. 12. artikuluko B), C) eta D) taldeetako patronoen izendapena.....	8
15. artikulua. Erakunde sortzaileetako ordezkarien izendapena.....	9
16. artikulua. Karguaren iraupena eta berrautapena.....	9
17. artikulua. Patronoak berritzeko prozesuaren hasiera.....	9
18. artikulua. Betekizunen egiaztapena.....	10
19. artikulua. Patronoen kargu-uztea eta ordezipena.....	10
20. artikulua. Presidentea.....	11
21. artikulua. Idazkaria.....	12
22. artikulua. Patronatuaren funtzioak.....	13
23. artikulua. Eskuordetzea eta ahalordetzeak.....	13
24. artikulua. Bilkurak.....	14
25. artikulua. Deialdia eta biltzeko lekua.....	14
26. artikulua. Eratzea eta erabakiak hartzea.....	15
27. artikulua. Hirugarren pertsonak Patronatuaren bileretara joateko aukera.....	16
28. artikulua. Akta Liburua.....	16
2. ATALA. BESTE GOBERNU ORGANO BATZUK.....	17
29. artikulua. Batzorde Betearazlea.....	17
30. artikulua. Zuzendari nagusia.....	17
31. artikulua. Auditoria eta Kontrol Batzordea.....	18
32. artikulua. Izendapen eta Ordainsarien Batzordea.....	19

3. ATALA. BESTE ORGANO BATZUK.....	20
33. artikulua. Aholku Batzordeak eta Ohorezko Patronoak.....	20
IV. KAPITULUA.....	21
ERREGIMEN EKONOMIKOA	21
1. ATALA. ONDAREA ETA ERRENTAK	21
34. artikulua. Fundazio-zuzkidura.	21
35. artikulua. Fundazioaren ondarea.	21
36. artikulua. Ondasun eta eskubideen titulartasuna.	21
37. artikulua. Besterentzea eta karga.	21
38. artikulua. Herentziak eta dohaintzak.....	22
39. artikulua. Errentak eta diru-sarrerak.....	22
2. ATALA. KONTABILITATEA ETA JARDUN PLANA.....	23
40. artikulua. Ekitaldi ekonomikoa, kontabilitatea eta auditoria.....	23
41. artikulua. Aurrekontua eta jardun-plana.	23
42. artikulua. Finantza-plana.	23
43. artikulua. Finantza-partaidetza kudeatzeko protokoloa.....	24
V. KAPITULUA	24
GOBERNU ONA: ETIKA ETA GARDENTASUNA.....	24
44. artikulua. Patronoen betebeharrak.	24
45. artikulua. Jarduteko printzipioak eta arauak.....	25
46. artikulua. Interes-gatazka.	26
47. artikulua. Patronoen erantzukizuna.....	27
48. artikulua. Publizitatea eta gardentasuna.	27
49. artikulua. Gobernu Korporatiboaren urteko txostena.	27
VI. KAPITULUA.....	28
BAT-EGITEA, AZKENTZEA ETA LIKIDAZIOA	28
50. artikulua. Xurgapena eta bat-egitea.....	28
51. artikulua. Desegitea.	28
52. artikulua. Likidazioa eta geldikinaren esleipena.....	29
VII. KAPITULUA	29
BABESLETZA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA.....	29
53. artikulua. Babesletza.	29
54. artikulua. Fundazioen Erregistroa.	29
XEDAPEN IRAGANKORRA. LEHEN PATRONATUAREN IZENDAPENA.....	29

AZALPENA/AITZINSOLASA

Kutxa Banku Fundazioa Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián - Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxaren ("**Kutxa**") Gizarte Ekintzaren jarraipen historikoa da.

Kutxa 1990eko abenduaren 1ean jarri zen abian. Irabazi-asmorik gabeko kreditu-erakunde gisa eratu zen, eta, ildo horretan, 1879ko apirilean sortutako Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián-Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak eta 1896ko uztailean sortutako Caja de Ahorros Provincial de Gipuzkoa-Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak bat egiteko prozesuaren ondoriozko izaera pribatu eta sozialeko fundazio gisa sortu zen.

Kutxak, urte horietan guztietan, Gipuzkoako lurralde historikoko ekonomiaren zerbitzurako kreditu-jarduera garatu du, eta, gizarte-ekintzaren bitartez, Gipuzkoako gizarte- eta kultura-jarduerak gauzatzen lagundu du aktiboki.

Kutxa Banku Fundazioa indarrean dagoen araudia betez Kutxa eraldatu izanaren ondorioz sortutako erakundea da, eta helburu bikoitza lortu nahi du: Gipuzkoako lurralde historikoko komunitatearen eta Kutxan lan egin duten belaunaldien ahaleginari eta lanari esker eratutako ondare propioa administratu, kontserbatu eta handitzea, eta Kutxaren egungo gizarte-ekintza osatzen duen sare sozial, kultural eta ekonomikoa sustatzera bideratutako ekimenekin jarraitzea eta ekimen horiek gauzatzea eta garatzea, estatutu hauetan ezarritakoari eta Kutxaren beraren tradizio historikoari jarraiki.

FUNDACION BANCARIA KUTXA-KUTXA BANKU FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK

I. KAPITULUA

FUNDAZIOAREN ERAKETA

1. artikulua. Izena, izaera eta eremua.

Fundazioaren izena "Fundación Bancaria Kutxa-Kutxa Banku Fundazioa" da ("Fundazioa", aurrerantzean), eta Estatutu hauetan zehaztutako interes orokorreko helburuak lortzeko baliatzen du bere ondarea, izaera iraunkorrez.

Fundazioa, nolahi ere, Caja de Ahorros y Monte de Piedad Municipal de San Sebastián-Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipalak eta Caja de Ahorros Provincial de Gipuzkoa-Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialak bat egitean sortutako Caja de Ahorros y Monte de

Piedad de Guipúzcoa y San Sebastián - Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa (edo Kutxa, aurrerantzean) banku-fundazio bihurtu izanaren emaitza da, eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatu gisa eratu da. Erakunde horrek, autonomiaren eta independentziaren printzipioetan oinarrituta, garapen eta euste ekonomiko eta sozialari lotutako esku-hartze publikoa ordeztan ez duen funtzio subsidiario bat betetzen du. Etekinak bere lurralde-eremuko sustapen sozial, ekonomiko eta kulturalean aplikatzean interes publikoa eta gizarte-onura lortzea da Fundazioaren helburu bakarra.

Fundazioak Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten ditu bere jarduerak nagusiki, eta bere jarduna Euskal Autonomia Erkidego osora eta, hala badagokio, beste lurralde batzuetara ere zabal dezake, Patronatuak hori erabakitzen badu.

Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala Kutzaren erakunde sortzaileak (erakunde sortzaileak, aurrerantzean) dira.

Estatutu hauek euskaraz eta gaztelaniaz idatzita daude.

2. artikulua. Helbidea.

Fundazioak, legezko ondorio guztietarako, Donostiako Mikeletegi pasealekuko 79 zenbakian, Torres de Arbide/Arbide Dorreak (Gipuzkoa) du helbide soziala.

Patronatuak helbide soziala lekualdatu ahal izango du, betiere Gipuzkoako Lurralde Historikoaren barruan eta indarrean dagoen araudian aurreikusitako baldintzak betetzen badira.

3. artikulua. Iraupena.

Fundazioa irauteko bokazioarekin sortu da eta, beraz, iraupen mugagabea izango du, Estatutu hauetan eta araudi aplikagarrian aurreikusitako azkentze-kasuak aparte utzi gabe.

4. artikulua. Arau-erregimena.

Fundazioa eraentzen dutenak honako hauek dira: Estatutu hauek, aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea, hurrenez hurren Euskal Autonomia Erkidegoko fundazioen babesletzaren erregelamendua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren erregelamendua onartzen duten ekainaren 19ko 100/2007 eta 101/2007 Dekretuak, eta aplikagarrien diren lege-arau guztiak.

5. artikulua. Nortasun juridikoa eta ahalmena.

Fundazioa banku-fundazioa izango da Fundazioen Erregistroan inskribatzean. Fundazioak Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutzaren nortasun juridikoarekin jarraitzen du (haren eraldaketaren ondorioa baita), eta nortasun juridiko osoa eta jarduteko ahalmena du.

II. KAPITULUA

HELBURUAK, JARDUERAK ETA ONURADUNAK

6. artikulua. Helburuak.

Fundazioak helburu soziala izango du, eta bere Gizarte Ekintza gauzatu eta garatzera, eta bere ondarea, eta, beraz, Kutxak bere finantza-jarduera transferitu zion banku-erakundearen (Kutxabank, aurrerantzean) duen partaidetza behar bezala kudeatzera bideratuko du bere jardueraren nagusia.

Fundazioa, nolana ere, garapena (garapen sozioekonomikoa, kulturaren eta artearen garapena, garapen asistentziala eta ingurumen-garapena) eta interes orokorreko beste helburu batzuk lortzen lagunduko duten proiektu eta jardueraren propioen edo lankidetzan egindakoen bultzada eta mantentze iraunkorrera bideratuta egongo da.

Fundazioa Kutxak historikoki egindako jardueraren jaraunlea denez gero, bultzatu eta garatuko dituen jarduerak, orientazio gisa (izaera eksklusibo eta nahitaezkorik gabe), honako eremu hauetan oinarrituko dira: gizarte-laguntza eta gizarteratzea, osasuna, dibertsitate funtzionalaren eta desgaitasunaren arreta, hezkuntza, euskararen garapena, hizkuntza-bizikidetzak, kultura, kirolaren eta haren balioen sustapena, lankidetzak, ikerketa zientifikoa, berrikuntza eta garapen teknologikoa, ingurumena eta iraunkortasuna, gazteen eta bazterkeria-arriskuan dauden kolektiboaren laneratzea eta, oro har, gizarte-balioen eta garapen pertsonalaren sustapena (elkartasuna, tolerantzia, boluntarioria, kolektiboa denaren ikuspegia eta horri balioa emateko aukera, eta berezitasunaren errespetua).

7. artikulua. Jarduerak.

Patronatuak fundazio-helburuak une oro betetzeko egokitzat edo komenigarritzat hartzen dituen jardun edo jarduerak guztiak egin ahal izango ditu Fundazioak, Estatutu hauetan eta legeria aplikagarrian ezarritakoari jarraiki.

Fundazioak, halaber, beste merkataritza-jarduerak batzuk egin ahal izango ditu, fundazio-helburuekin zerikusia duen edo horien osagarria den xedea duten jarduerak ekonomikoak egitearen bidez, merkataritza-sozietateetako partaidetzaren bidez edota ordenamendu juridikoan onartutako beste edozein moduren bidez.

Fundazioak bere helburu eta jardueri buruzko informazio nahikoa emango du, balizko onuradunek eta gainerako interesdunek horien berri izan dezaten.

8. artikulua. Onuradunak.

Patronatuaren ustez mereziak dituzten pertsona fisikoak edo juridikoak izango dira Fundazioaren jardura propioen eta, hala badagokio, beste proiektu batzuetarako laguntzen onuradunak. Nolanahi ere, Gipuzkoako gizartea hartzen da, oro har, Fundazioaren jardueren onuraduntzat.

Patronatuak inpartzialtasunari eta diskriminaziorik ezari lotutako irizpideekin jardungo du onuradunak finkatzean.

Inork ezin izango du alegatu Fundazioaren edo Patronatuaren aurrean, ez bakarka eta ez taldeka, bere onurak baliatzeko ezein eskubiderik onura horiek eman aurretik. Era berean, inork ezin izango du inposatu onura horiek pertsona jakin batzuei esleitzea.

III. KAPITULUA

FUNDAZIOAREN GOBERNUA

9. artikulua. Fundazioaren gobernu.

Honako hauek dira Fundazioaren gobernu-organoak (Estatutu hauetan aurreikusitako baldintzetan):

- a) Patronatua.
- b) Batzorde Betearazlea, Auditoria eta Kontrol Batzordea, Izendapen eta Ordainsarien Batzordea, eta edozein izenekin Patronatua osatzen duen beste edozein batzorde delegatu.
- c) Zuzendari nagusia.

1. ATALA. PATRONATUA

10. artikulua. Izaera.

Fundazioa gobernatu, administratu eta ordezkatzeko organo gorena da Patronatua, eta fundazio-helburuak betetzeko beharrezkoak diren ahalmen eta eskumen guztiak baliatzea dagokio, betiere Estatutu hauek eta ordenamendu juridikoak xedatzen dutenari jarraiki.

Patronatua kide anitzekoa izango da, eta kide edo patronoek Estatutu hauetan eta ordenamendu juridikoan ezarritako betebeharrak, printzipio eta arauak jarraiki beteko dute kargua.

Patronatuak fundazio-helburuak bete beharko ditu, eta Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak arduraz administratu beharko ditu (hau da, ondasun eta eskubide horien errendimendu eta erabilgarritasunari eutsiz).

11. artikulua. Patrono-karguaren izaera.

Patronoek doan beteko dute beren kargua.

Patronatuak, aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, ordainsari egoki bat finkatu ahal izango du Fundazioari Patronatuko kide gisa dagozkien funtzioei lotutakoez bestelako zerbitzuak egiten dizkieten patronoentzat, Babesletzak baimena eman ondoren.

Patronatuak kopuru finko bat ezarri ahal izango du bertaratze-dieta gisa, patronoaren kargua betetzeak eragindako gastuak konpentsatzeko.

Patronoek Fundazioaren interesen onerako eta Fundazioaren funtzio soziala betetzeko beteko dituzte beren funtzioak.

12. artikulua. Patronatuaren osaera.

Patronatua gutxienez bederatz (9) kidek eta gehienez hamabost (15) kidek osatuko dute. Muga horien barruan, kideen kopuru zehatza finkatzeko ahalmena izango du Patronatuak.

Patronoak pertsona fisiko edo juridiko garrantzitsuak izango dira Fundazioaren Gizarte Ekintzaren jardun-eremuan, eta ondoren adieraziko ditugun taldeetakoren batekoak izan beharko dute:

- A) Erakunde sortzaileak: Bi (2) kide.
 - Gipuzkoako Foru Aldundia.
 - Donostiako Udala.

Erakunde sortzaileak Fundazioko berezko patronotzat hartuko dira, eta barneko funtzionamendu-arauei jarraiki hautatuko dituzte beren ordezkariak.

- B) Fundazioaren jardun-eremuan interes kolektiboak ordezkatzeko dituzten erakundeak: kide bat (1).

- C) Fundazioaren helburu sozialak betetzeari lotutako arloetan edo Fundazioak inbertsio garrantzitsuak dituen sektoreetan (finantza-sektorea salbuetsita) ospe profesional handia duten pertsona fisiko independenteak: bi (2) kide gutxienez.

D) Finantza-arloan jakintza eta esperientzia espezifikoa duten pertsona fisikoak: Patronatua osatzen dituen kideen herenak (1/3) gutxienez.

13. artikulua. Patronoa izateko betekizun orokorrak.

Legearen eta Estatutuen arabera aplikagarriak zaizkien zintzotasun komertzial eta profesionaleko betekizunak bete beharko dituzte patronoek. Patronoek, halaber, legearen eta Estatutuen arabera eska dakizkiekeen funtzioak betetzeko jakintza eta esperientzia espezifikoa izan beharko dute.

Jarduteko ahalmen osoa duten eta kargu publikoak betetzeko gaitasungabetuta ez dauden pertsona fisikoak izan daitezke Patronatuko kide. Hala ere, honako hauek ezin izango dira patronoak izan:

a) Alderdi politiko, enpresa-elkarte edo sindikatueta kargu politiko hautetsiak eta kargu betearazleak.

b) Estatuko Administrazio Orokorreko, Autonomia Erkidegoetako Administrazioa, Toki Administrazioa eta horiei lotuta edo horien mende dauden sektore publikoko eta Zuzenbide Publiko edo Pribatuko erakundeetako goi-karguak. Patrono izateko bateraezintasuna dagokion goi-karguak kargua utzi eta hurrengo bi urteetara zabalduko da.

c) Indarrean dagoen legeriak ezarritako beste bateraezintasun-arrazoien batean dauden pertsonak.

Pertsona juridikoak diren patronoek ordezkatu dituen pertsona fisikoa hautatu beharko dute. Pertsona juridikoak diren patronoak ordezkatzeko dituzten pertsona fisikoek beren funtzioak betetzeko jakintza eta esperientzia espezifikoa izan beharko dute, indarrean dagoen legeriak pertsona fisikoak diren patronoek eskatzen dizkien zintzotasun komertzial eta profesionaleko betekizunak bete beharko dituzte, eta indarrean dagoen legeriak eta Estatutu hauek patronoentzat ezartzen dituzten bateraezintasun-kausa berak eta betebeharrak eta eginbeharrak izango dituzte. Kargua indarrean dagoen araudian ezarritako moduan esanbidez onartu ondoren hasiko dira patronoak beren funtzioak betetzen.

14. artikulua. 12. artikuluko B), C) eta D) taldeetako patronoen izendapena.

Izendapen eta Ordainsarien Batzordeak egokitasun-betekizunak egiaztatu ondoren izendatuko ditu Patronatuak patrono titularrak eta ordezkakoak, aurreko artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Kargua utzi duten eta beste agintaldi baterako proposatzen diren patronoek abstenitu egin beharko dute beren kargua berritzeari buruzko eztabaidan eta bozketan.

15. artikulua. Erakunde sortzaileetako ordezkarien izendapena.

Erakunde sortzaileek beren ordezkariak hautatuko dituzte, eta, nolana ere, eskubidea izango dute bidezkotzat hartzen dutenean beren ordezkariak ordezteko. Erakunde sortzaileetako ordezkarien izendapena eta/edo kargu-uztea beren hautaketaren ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da.

Erakunde sortzaileek hautatutako titularrek eta ordezkoek ezarrita dauden betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, Izendapen eta Ordainsarien Batzordeak Patronatuko presidenteari jakinaraziko dio hori, erakunde sortzaileek Patronatuan izango dituzten ordezkarien izendapena beste izapiderik egin gabe formaliza dezan.

16. artikulua. Karguaren iraupena eta berrautapena.

Patronoaren agintaldia lau (4) urtekoa izango da. Agintaldia bete arte, patronoen izendapena ezeztazina izango da, gerora sortutako bateraezintasuna agertzen denean, hautaketarako eskatutako betekizunetako edozein betetzen ez denean eta Patronatuak banantzeko erabakia hartzen duenean (bidezko arrazoi bat ikusten bada) izan ezik.

Patronoek, beren taldea edozein izanik ere, segidako bi (2) agintalditan bete ahal izango dute kargua gehienez.

Artikulu honetan araututakoak ez ditu eraginpean hartuko erakunde sortzaileak, Fundazioko berezko patronotzat hartzen baitira.

17. artikulua. Patronoak berritzeko prozesuaren hasiera.

Patronoen agintaldia amaitu baino lau (4) hilabete lehenago, Patronatua berritzeko prozesua hastea erabakiko du Patronatuko presidenteak berak.

Ondorio horietarako, Patronatuko presidenteak (2) hilabete gehieneko epean honako izendapen-proposamen hauek aurkezteko eskatuko die Gipuzkoako Batzar Nagusiei, Gipuzkoako Lurralde Historikoko herritarren borondatearen ordezkari goren baitira:

Estatutu hauen 12. artikuluko B) Talderako patrono titular baterako eta ordezko patrono baterako proposamen bat (1). Patronatuak, ondorio horietarako, interes kolektiboak ordezkatzeko dituzten eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan presentzia duten erakundeak gonbidatu ahal izango ditu, Gipuzkoako Batzar Nagusiei bidezkotzat hartzen dituzten patrono titularrak eta ordezkoak izateko hautagaiak proposa diezazkieten.

Estatutu hauen 12. artikuluko C) Talderako patrono titularrak izendatzeko hiru (3) proposamenetik seira (6) bitarte, eta ordezko patronoak izendatzeko sei (6) proposamenera bitarte.

Estatutu hauen 12. artikuluko D) Talderako patrono titularrak izendatzeko bi (2) proposamenetik bostera (5) bitarte, eta ordezko patronoak izendatzeko bost (5) proposamenera bitarte.

Patronatuko presidenteak, halaber, (2) hilabete gehieneko epean Estatutu hauen 12. artikuluko D) Talderako patrono titular bat izendatzeko proposamen bat (1) eta ordezkari patrono bat izendatzeko proposamen bat (1) aurkezteko eskatuko die Kutxabankeko Gipuzkoako langileen ordezkari sindikalei.

Izendatzeko egindako proposamenak organismo eta/edo erakunde bakoitzean ziurtatzeko ahalmena duen organoak edo agintaritzak emandako bidezko ziurtagiriaren bidez dokumentatuko dira.

Titularrak eta ordezkariak izendatzeko proposamenen barnean hartutako pertsonen legean eta Estatutuaren Patronatuko kide izendatzeko aurreikusitako betekizunak bete beharko dituzte.

Horretarako gaitutako epea amaitu ondoren erakundeek patronoak izendatzeko egindako proposamenak gauzatzen ez badira edo proposamen horiek Patronatuko postu guztiak betetzeko nahikoak ez badira, Patronatuak ahalmena izango du patronoak zuzenean izendatzeko, Izendapen eta Ordainsarien Batzordeak proposatutako patronoen betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren.

18. artikulua. Betekizunen egiaztapena.

Izendapen eta Ordainsarien Batzordeak izendapen-proposamenak aztertuko ditu hamar (10) egun naturaleko epean gehienez, legean eta estatutuaren izendatzeko eskatutako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzeko xede bakarrarekin.

Proposatutako pertsona batek (edo gehiagok) betekizun horiek betetzen ez baditu, Izendapen eta Ordainsarien Batzordeak horren berri emango dio Patronatuko presidenteari, Gipuzkoako Batzar Nagusiei edo Kutxabankeko Gipuzkoako langileen ordezkari sindikalei, hala badagokio, patronoak izendatzeko proposamen berriak aurkezteko eska diezaien eta, era horretan, Patronatuak ezarritako patronoen kopurua osatu ahal izan dadin. Epeak eta jarraitu beharreko prozedura 17. artikuluan horretarako ezarritakoen berdina izango dira.

Aurreko paragrafoan ezarritako izapidea amaitu ondoren Izendapen eta Ordainsarien Batzordeak Estatutuaren 12. artikuluko B), C) eta D) taldeetarako patronoak izendatzeko proposamenetako batean agertzen den pertsona batek (edo gehiagok) legean eta/edo estatutuaren Fundazioko patronoak izateko eskatutako betekizunak betetzen ez dituztela ikusten badu, horren berri emango dio Patronatuari, zerrenda aukeratzen dituen pertsonekin osa dezan, betiere Izendapen eta Ordainsarien Batzordeak proposatutako patronoen betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren.

19. artikulua. Patronoen kargu-uztea eta ordezkaria.

Patronoek kargua uzteko arrazoiak honako hauek izango dira:

a) Heriotza edo heriotza-deklarazioa (pertsone fisikoen kasuan) edo desegitea (pertsone juridikoen kasuan).

b) Patronatuak banantzeko erabakia hartzea, honako arrazoi hauetan oinarrituta: gerora sortutako ezintasuna, gaitasungabetzea edo bateraezintasuna, izendatzeko eskatutako betekizunetako edozein galtzea, askotan Patronatuaren bileretara justifikaziorik gabe ez joatea, eta Patronatuak ikusitako bidezko beste edozein arrazoi. Azken kasu horretan, kideen bi herenen (2/3) aldeko botoa beharko da gutxienez.

c) Agintaldia amaitzea, kargua berritzen denean izan ezik.

d) Karguari uko egitea, Fundazioen Erregistroaren edo Patronatuaren aurrean egin beharreko agerpenaren bidez notarioak egiaztatutako sinadura izango duen dokumentu publikoan eta dokumentu pribatuan adierazita. Kasu horretan, idazkariak emango duen eta notarioak egiaztatutako sinadura izango duen ziurtagiriaren bitartez egiaztatuko da ukoa.

e) Aplikatu beharreko legerian ezarritako beste guztiak.

12. artikuluko B), C) eta D) Taldeetako patronoen karguetan hutsik geratzen diren postuak ordezkoei bete beharko dituzte kargua utzi dutenei betetzeko geratzen zitzaien aldi, hilabeteko epean, postua hutsik geratzen denetik aurrera zenbatzen hasita. Postu huts baten kasuan, postu hori hutsik geratu zenean legean eta estatutuetan Fundazioko patrono izateko eskatutako betekizunak betetzen dituen ordezkorik ez badago, Patronatuak ahalmena izango du zuzenean patrono berri bat izendatzeko, agintaldiari geratzen zaion tarte amaitu arte.

20. artikulua. Presidenteak.

Patronatuak askatasun osoz izendatuko du presidenteak bertako kideen artean. Horretarako, Patronatuko kideen gehiengo osoaren aldeko botoak beharko dira lehen bozketan, eta bertaratuetatik edo ordezkatuetatik boto gehien lortzen dituen aukeratuko da bigarren bozketan. Berdinketarik izanez gero, karguan antzintasunik handiena duena edo urte gehien dituen (ordena horretan) aukeratuko da.

Patronatuko presidenteak Fundazioaren erakunde-ordezkaritza gorena du pertsona, agintari eta erakunde publiko edo pribatu guztien aurrean, eta Patronatuaren eta zuzendari nagusiaren arteko solaskidea da.

Presidenteari honako ahalmen hauek dagozkie, besteak beste:

a) Presidenteak den organoen bilkuretarako deialdia egitea, eztabaidatu beharreko gaiak eta horien ordena finkatzea, bilkurak zuzentzea, eztabaidak zuzendu eta bideratzea, erabakiak bozkatzeko jartzea, bozketen emaitza aldarrikatzea eta aktei oniritzia ematea.

b) Fundazioaren sinadura ofiziala zuzendari nagusiarekin solidarioki eta/edo batera eramatea, Patronatuak erabakitzen duenaren arabera.

c) Patronatuaren erabakien inguruan ematen diren ziurtagiriei oniritzia ematea.

- d) Fundazioak behartzen edo eraginpean hartzen dituzten legezko xedapenen eta Estatutu hauen aginduen betetzea zaintzea.
- e) Larrialdi handiko kasuetan, Patronatuak ebatzi arte geroratzeko aukera ematen ez duen edozein gaitan komeni dena xedatzea, eta Patronatuak egiten duen lehen bileran egindakoaren berri ematea.
- f) Patronatuaren erabakiak betetzea eta betearaztea.
- g) Fundazioaren kanpoko harremanetan haren ordezkaritzarik handiena izatea.
- h) Legeek eta Estatutu hauek esleitzen dizkieten edo Patronatuak eskuordetzen dizkion gainerako ahalmenak betetzea.

Patronatuko presidenteak kargua uzteko arrazoiak honako hauek izango dira:

- a) Patronatua osatzen duten kideen gehiengo osoaren aldeko botoekin kargua uzteko hartutako erabakiaren bidez.
- b) Patrono-izaera galdu izanagatik.
- c) Patronatuko idazkariari idatziz aurkeztutako ukoagatik.

Patronatuak presidenteorde bat edo batzuk hautatu ahal izango ditu bertako kideen artean. Presidenteza ez badago, gaixorik badago edo kargua hutsik badago, haren funtzioak presidenteorde bakarrak edo lehenak hartuko ditu bere gain, eta, bestela, bigarren presidenteordeak eta hurrengoek (baldin badaude); eta, halakorik ezean, Patronatuko kiderik zaharrenak.

Kargua berritzeko ahalmena aparte utzi gabe, Patronatuan edo beste edozein organo betearazletan karguak dituzten patronoak berriz hautatzen dituztenean aurreko kargu bera betetzen jarraituko dutela ulertzen da.

21. artikulua. Idazkaria.

Patronatuak idazkari bat izendatuko du, eta ez da zertan patrono izan (patronoa ez bada, hitza izango du, baina botorik ez). Nolanahi ere, bere funtzioak betetzeko beharrezkoa den lanbide-kalifikazioa, esperientzia eta jakintza izan beharko du, eta Fundazioaz kanpoko profesional bat izan daiteke. Idazkariari honako funtzio hauek dagozkie:

- a) Patronatuaren eta batzordeen bileretara joatea.
- b) Patronatuaren eta batzordeen bilkuren aktak idatzi eta baimentzea.
- c) Patronatuaren erabakiak ziurtatzea, presidentearen oniritziarekin.
- d) Patronatuaren akta-liburuak eta dokumentuak zaintzea.

e) Patronatuaren eta bertako kideen jarduna legearekin, estatutuekin eta, hala badagokio, Fundazioaren barne-erregelamenduekin bat etortzeko aholkuak ematea eta zaintzea.

f) Idazkariari datxezkion edo agintzen zaizkion beste funtzio guztiak.

Patronatuak, halaber, idazkariorde bat edo batzuk izendatu ahal izango ditu, eta ez dira zertan patrono izan (patronoak ez badira, hitza izango dute, baina botorik ez). Idazkaria ez badago, gaixorik badago edo kargua hutsik badago, haren funtzioak idazkariorde bakarrak edo lehenak hartuko ditu bere gain, eta, bestela, bigarrenak eta hurrengoek (baldin badaude); eta, halakorik ezean, Patronatuak, erabaki bidez, Fundazioko langile bat gaitu ahal izango du aldi baterako, idazkari-funtzioak bete ditzan.

22. artikulua. Patronatuaren funtzioak.

Patronatuak, Fundazioaren gobernu-organo gorena den heinean, Fundazioaren administrazio- eta ordezkari-ahalmenik handienak izango ditu, eta legean eta Estatutu hauetan ezarritakoak izango dira muga bakarrak.

Horretarako, Fundazioa eta haren ondasunak eta eskubideak babestu eta gordeko ditu, eta beharrezkoak edo komenigarriak diren jardunak egingo ditu une eta zirkunstantzia orotan. Ildo horretan, Fundazioaren ondasunak eta eskubideak xedatu, administratu, gorde, zaindu eta babesteko funtzioak beteko ditu, eta, edonola ere, Estatutu hauei eta indarrean dagoen legeari jarraituko die.

Patronatua, halaber, dagokiona kontrolatu, ikuskatu eta Espainiako Bankuari jakinarazteaz arduratuko da, Fundazioari aplikagarri zaion legeria orokorrari jarraiki, eta Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostena, Finantza Plana eta finantza-partaidetza kudeatzeko Protokoloa onartuko ditu.

Era berean, Patronatuari dagokio Kutxabanken duen partaidetza kudeatzea. Horretarako, Fundazioari Batzar Orokorreko akziodun gisa dagozkion eskubideak eta ahalmenak baliatuko ditu, eta, hala badagokio, Fundazioaren ordezkari-lanetan eskubide horiek baliatuko dituenari bidezko aginduak emango dizkio eta bere interesetarako egokitzat hartzen duen jarraipen-informazioa eskatuko dio.

23. artikulua. Eskuordetzea eta ahalordetzeak.

Patronatuak kide bati edo batzuei eta zuzendari nagusiari eskuordetu ahal izango dizkie Batzorde Betearazlean dituen ahalmenak, eta ahalorde orokorrak edo bereziak eman ahal izango ditu.

Ezein kasutan ezin izango dira eskuordetu kontuen eta jardun-planaren onarpenari buruzko erabakia, Fundazioaren Estatutuen aldaketa, finantza-partaidetza kudeatzeko protokoloaren eta Fundazioaren finantza-planaren onarpena, Fundazioaren gobernu korporatiboaren urteko txostenaren lanketa, Fundazioaren bat-egiteari edo Fundazioa eraginpean hartzen

duen beste edozein aldaketa estrukturali buruzko erabakia, gehiengo berezi bat behar duten erabakiak, Babesletzaren baimena behar duten ahalmenak eta indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen beste guztiak.

Auzietarako ez diren eskuordetze iraunkorrak, ahalordetzeak eta horien ezeztatzeak indarrean dagoen araudiari jarraiki eskumena duen Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

24. artikulua. Bilkurak.

Patronatuaren bilkurak ohikoak eta ezohikoak izan daitezke.

Patronatuak bere funtzioak eraginkortasunez betetzeko beharrezkoa den maiztasunarekin egingo ditu bilkura arruntak, eta gutxienez hiru hilean behin, presidenteak deialdia egin ondoren.

Patronatua presidenteak edo haren ordezkariak beharrezkotzat hartzen duenean edota kideen herenek idatziz eta aztertu beharreko gaiak zehatz-mehatz adieraziz eskatzen dutenean bildu ahal izango da. Deialdia egiteko betebeharra presidentearen ustez premia egiaztatua dagoenean eta bilera Patronatuaren eskumeneko arlo garrantzitsuei lotuta dagoenean baino ez da izango.

Deialdia egiteko eskatzen den kasuan, Patronatuko presidenteak lau (4) egun balioduneko gehieneko epean egingo du bilkurarako deialdia, eta bilkura deialdia egin eta hogeita lau (24) ordutik hirurogeita hamabira (72) bitarteko tartean egingo da. Gai-zerrendan, eskaera osatzen duten eta presidentearen ustez premiazkoak diren eta Patronatuaren eskumeneko arlo garrantzitsuei lotuta dauden gaiak sartuko dira.

Patronatua, halaber, izaera unibertsalez bildu ahal izango da patrono guztiak bertaratuta edo ordezkatuta egonik aho batez ezohiko bilkura egitea erabakitzen dutenean (aho batez ezartzen duten gai-zerrendarekin).

25. artikulua. Deialdia eta biltzeko lekua.

Patronatuko presidenteari dagokio Patronatuaren bilkuretarako deialdia egitea.

Deialdia posta elektronikoki bidez edo jaso dela adierazteko aukera emango duen beste edozein baliabideren bidez egingo da. Bertan, bileraren lekua, eguna, ordua eta gai-zerrenda adieraziko dira, eta dagokion dokumentazioa erantsiko zaio.

Ohiko bilkuretarako deialdia lau (4) egun baliodun aurretik egin beharko da gutxienez. Ezohiko bilkuren kasuan, berriz, deialdia baliozkoa izango da gutxienez hogeita lau (24) ordu lehenago egiten bada, aurreko artikuluan izaera unibertsaleko bilerei dagokienez ezarritakoa aparte utzi gabe.

Deialdiaren eta patronoei eman beharreko edozein komunikazioaren ondorioetarako, patronoak kargua onartzen duenean Fundazioari ematen dion helbide elektronikoa erabiliko da, eta, horri dagokionez aldaketarik izanez gero, Fundazioari jakinarazi beharko zaio.

Bilerak helbide sozialean egingo dira, baina presidenteak erabakitzen duen beste lekuren batean ere egin ahal izango dira.

Gainera, bilkurak hainbat lekutan egin ahal izango dira aldi berean, betiere ikus-entzunezko edo telefono bidezko baliabideekin leku horiek denbora errealean elkarrekin jarduteko eta komunikatzeko aukera, eta, beraz, egintzaren batasuna ziurtatzen bada. Kasu horretan, konektatzeko sistema eta, hala badagokio, bileran egoteko eta parte hartzeko baliabide teknikoak eskuragarri dauden lekuak jasoarazi beharko dira deialdian. Erabakiak presidentea dagoen lekuan hartu direla ulertuko da.

26. artikulua. Eratzea eta erabakiak hartzea.

Bilkurari hasiera ematean kideen erdiak gehi bat bertaratuta edo ordezkatuta daudenean hartuko da Patronatua balio osoz eratutzat. Patronatuko kideek beste patrono batzuei baino ezin izango diete laga beren ordezkaritza, eta ordezkaritza idatziz eta bereziki Patronatuaren bilera bakoitzerako eman beharko da.

Deitutako bilerara Patronatuko kideen erdiak baino gehiago joaten ez badira, bilera bigarren deialdian eratu ahal izango da, betiere bertaratu diren edo ordezkatuta dauden patronoak gutxienez Patronatuko kide guztien herenak badira eta lehen deialdiaren eta bigarrenaren artean gutxienez hirurogei (60) minutuko tartea badago.

Patronatuak gai-zerrendan jasotako gaiei buruz soilik eztabaidatu eta erabaki ahal izango du, Estatutu hauen 24. artikuluan izaera unibertsaleko bilerei dagokienez aurreikusitakoa aparte utzi gabe.

Patronatuak bertaratutako edo ordezkatutako patronoen gehiengo soilaren aldeko botoekin hartuko ditu bere erabakiak, Estatutu hauen edo legeria aplikagarriaren arabera gehiengo berezi bat behar duten erabakien kasuan izan ezik. Gehiengo soilaren aldeko botoak aurkako botoak baino gehiago direnean lortuko da, abstentzioak eta boto zuriak zenbatu gabe. Berdinketarik izanez gero, presidenteak edo, hala badagokio, bilera zuzentzen duen pertsonak kalitateko botoa izango du.

Fundazioaren bat-egiteari, edozein aldaketa estrukturali eta desegiteari buruzko erabakiak hartzeko, Kutxabanken edozein inbertsio eta/edo desinbertsio egiteko eta Estatutu hauek aldatzeko, kideen bi herenen botoak beharko dira. Aurrekoa gorabehera, agindu-indarrezko arau batek idatz-zati honetan aipatzen diren erabakiak hartzea dakarren edozein betebeharraren ezartzen badu, erabakiak arau horretan adierazitako gehiengoekin hartuko dira, eta arauan aurreikuspen espezifikorik ez badago, gehiengo soilaz.

Bozketak izendunak izango dira normalean, bertaratutako edo ordezkaturako patrono gehienek sekretuak izatea erabakitzen dutenean izan ezik. Patronatuaren eztabaidak eta erabakiak sekretuak izango dira; nolana ere, administrazio publiko eskudunei edo beste organo eta agintari batzuei informazioa emateko betebeharrak bete beharko dira.

Balio osoz hartutako erabakiek Patronatuko kide guztiak behartuko dituzte, disidenteak eta bertaratu ez direnak barne.

Patronatuak idatziz eta bilkurarik gabe hartu ahal izango ditu bere erabakiak prozedura horren aurka ezein patrono ez dagoenean. Kasu horretan, botoa jaso izana idatzita utzi eta botoaren egiazkotasuna bermatu beharko da.

27. artikulua. Hirugarren pertsonak Patronatuaren bileretara joateko aukera.

Presidenteak Patronatuko bileretara joatera gonbidatu ahal izango du Fundazioko zuzendari nagusia, eta hari beharrezkoa edo komenigarria denean gai-zerrendako gaietan parte hartzeko eskatzen zaionean, hitza izango du, baina botorik ez.

Gaien izaera dela-eta komeni denean, Patronatuko presidenteak errekerimendua egin ondoren eta gai-zerrendako gaiei buruzko informazioa emateko xede bakarrarekin, horretarako bereziki kalifikatuta dauden hirugarren pertsonak joan ahal izango dira Patronatuaren bilkuretara, hitzarekin baina botorik gabe.

28. artikulua. Akta Liburua.

Idazkariak Patronatuko bileren akta egingo du. Aktak presidenteak eta idazkariak sinatuko dituzte, eta bilkura bakoitzera bertaratutakoen zerrenda, izandako bozketen emaitzak eta hartzen diren erabakien testu literalak jaso beharko da aktetan.

Erabakiak Akta Liburuan transkribatuko dira.

Presidenteak, komenigarritzat hartzen duenean edo Patronatuko kideen herenek eskatzen dutenean, berak aukeratutako notario bat egotea eskatu ahal izango du, Patronatuaren bileraren akta egin dezan. Notario-akta Patronatuaren aktatzat hartuko da, eta, beraz, Patronatuaren Akta Liburuan transkribatu beharko da.

2. ATALA. BESTE GOBERNU ORGANO BATZUK

29. artikulua. Batzorde Betearazlea.

Patronatuak Batzorde Betearazle bat hautatu ahal izango du bere baitan, eta batzorde delegatua izango da. Patronatuak Batzorde Betearazleari eskuordetu ahal izango dizkio ahalmen guztiak, eskuordetu ezin direnak izan ezik.

Batzorde Betearazlea osatzen duten patronoak eta horien karguak aukeratzeko eta funtzionamendu-arauak finkatzeko modua Patronatuak onartuko duen Erregelamenduan ezarriko da.

30. artikulua. Zuzendari nagusia.

Patronatuak zuzendari nagusi bat izendatuko du. Zuzendari horrek Patronatuaren zuzendaritzapean eta ikuskapenpean jardungo du, eta Fundazioaren zuzendaritza eta kudeaketa arrunta eta iraunkorra hartuko du bere gain. Bere funtzioak betetzean, Fundazioaren interesari eskusiboki lotuta jardungo du.

Zuzendari nagusiak kontuak emango dizkio aldizka Patronatuari, eta elkarrizketa iraunkorra izango du presidentearekin.

Zuzendari nagusia Patronatuak izendatuko du zintzotasun komertzial eta profesionaleko betekizunak betetzen dituzten eta kargu horren berezko funtzioak betetzeko beharrezkoak diren jakintza, gaitasuna, prestaketa teknikoa eta esperientzia dituzten pertsonen artean. Patronatuari dagokio, halaber, zuzendari nagusiari kargua utzaraztea.

Zuzendari nagusiaren kargua bateraezina da Patronatuko kidearen karguarekin, eta Estatutu hauen 13. artikuluan aurreikusitako betekizunak, debekuak eta bateraezintasunak bete beharko ditu.

Halaber, Estatutu hauen 46. artikuluan ezarritako printzipioak eta jardun-arauak aplikatuko zaizkio.

Zuzendari nagusiari Fundazioaren zuzendaritza eta kudeaketa arrunt eta iraunkorrari lotutako funtzioak dagozkio, eta Patronatuak onartutako jardun-ildoek jarraiki beteko ditu. Besteak beste, honako hauek dira:

- a) Fundazioaren giza baliabideak kudeatzea (Patronatuak onartutako plantillaren barruan), eta indarrean dauden lan-arauen betetzea zaintzea.

- b) Fundazioaren berezko xedea osatzen duten jarduera guztien funtzionamendua Patronatuaren jarraibide eta planen arabera koordinatu eta kontrolatzea, kudeaketan eraginkortasun-maila handia lortzeko.
- c) Fundazioaren sinadura administratiboa eramatea korrespondentzian, funtsak eta balioak mobilizatzean, kontu korronteak ireki eta likidatzean eta edozein motatako gordailuak eratu eta ixtean, edozein kreditu-erakundetan (baita Espainiako Bankuan ere).
- d) Patronatuak onartu beharreko jardun-planak, finantza-planak, aurrekontuak, finantza-partaidetza kudeatzeko protokoloa, txostenak eta memoriak prestatzea.
- e) Patronatuak eta/edo batzordeek aztertzeko jarri behar diren erabakiak aztertu eta prestatzea.
- f) Patronatuaren eta/edo batzordeen erabakiak betearaztea.
- g) Fundazioaren zerbitzuen antolamendu onerako eta funtzionamendu eraginkorrerako bidezko hartzen dituen aginduak eta instrukzioak ematea, barne-zerbitzuak antolatzea eta Fundazioaren dependentsia, bulego eta zerbitzu guztiak, oro har, ikuskatu eta zaintzea, Patronatuaren ordezkari iraunkor gisa.
- h) Fundazioaren kontabilitatea antolatzea.
- i) Patronatuari informazioa ematea eta bidezko hartzen dituen proposamen guztiak helaraztea.
- j) Patronatuari, kontuak formulatzeko eta emaitzak aplikatzeko proposamena aurkeztea, hark onar dezan.
- k) Patronatuak eskuordetzen edo ahalordetzen dion beste edozein ahalmen erabiltzea.

Artikulu honetan aurreikusitako ahalmen guztiak Patronatuaren erabakiei jarraiki ezartzen diren eta aplikatu behar diren mugei lotuta edo horien baldintzapean daudela ulertuko da. Zuzendari nagusiak, beharrezko hartzen duenean eta Patronatuak baimendu ondoren, Fundazioko zuzendari edo langile bati eskuordetu ahal izango dio bere eskudantziaren bat.

31. artikulua. Auditoria eta Kontrol Batzordea.

Patronatuak, indarrean dagoen araudian ezarrita dagoenaren arabera, Auditoria eta Kontrol Batzorde bat eratuko du.

Indarrean dagoen legeriak eta Patronatuak esleitzen dizkioten eskumenak izango ditu Batzorde horrek. Funtsean, honako hauek izango dira:

- a) Oro har, Estatutu hauek, gobernu korporatiboko arauak, interes-gatazkei buruzko arauak, barne-erregelamenduak eta gainerako arau aplikagarriak zorrotz betetzen direla zaintzea.

b) Interes-gatazkei eta Patronatuak Estatutu hauen eta erregelamenduen interpretazioari dagokionez planteatzen dizkion gai guztiei buruzko txostena egitea.

c) Patronatuari Fundazioaren kanpoko kontu-auditorearen hautaketa eta, hala badagokio, kontratazio-baldintzak, aginte profesionalaren nondik norakoa eta izendapenaren ezeztatzea edo berritzea proposatzea.

d) Kanpoko kontu-auditorearekin aldizka harremanetan jartzea, auditoria-planari eta haren egikaritzearen emaitzei buruzko informazioa (zuzendaritzak haren gomendioak kontuan hartzen dituela egiaztatuta) eta auditorearen independentzia arriskuan jar dezaketen gaiei eta kontu-auditoria garatzeko prozesuari lotutako beste gai guztiei buruzko informazioa jasotzeko, kontu-auditoriari buruzko legerian eta auditoriari buruzko arau teknikoetan aurreikusitako komunikazioen bidez.

e) Batzorde honen eskumenekoak diren gaiei dagokienez planteatzen diren auzien berri ematea Patronatuari.

Hiru (3) patronotik bostera (5) bitarte izango dira Batzorde hori osatuko dutenak, eta proposatutakoek Batzordearen berezko arloetan duten kalifikazioa, jakintza eta esperientzia balioetsiko dira.

Batzordeko kideek presidente bat aukeratuko dute beren artean. Patronatuko idazkariak Batzordeko idazkari gisa jardungo du.

Batzordearen funtzionamendu-erregimena Patronatuak onartu beharreko Erregelamenduen bidez ezarriko da.

32. artikulua. Izendapen eta Ordainsarien Batzordea.

Patronatuak Izendapen eta Ordainsarien Batzordea eratuko du bertako kideekin. Batzorde hori osatuko duten patronoak hirutik (3) bostera (5) bitarte izango dira.

Batzordeak presidentea izendatuko du kideen artean. Patronatuko idazkariak jardungo du Batzordeko idazkari gisa.

Izendapen eta Ordainsarien Batzordeak, 18. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako ahalmenez gain, honako funtzio hauek izango ditu:

a) Patronatuari patronoentzako eta, hala badagokio, Fundazioko goi-zuzendarientzako dieten eta/edo ordainsarien inguruko politika orokorrari buruzko informazioa ematea.

b) Legean eta estatutuetan patronoaren kargua eta, hala badagokio, Fundazioko zuzendari nagusiaren kargua betetzeko aurreikusitako betekizunen betetzea bermatzea.

c) Ordainsarien gardentasuna zaintzea, eta horretarako garrantzitsua den edozein informazio Patronatuak aztertzeke jartzea.

d) Patronatuko kideek edo Lurralde Historikoko erakunde publiko edo pribatuek honako hauei buruz igorritako informazioa aztertzea: (i) zintzotasun komertzial eta profesionalari, esperientziari eta gobernu onari lotutako betekizunak, legean eta estatutuetan eskatutakoak, (ii) Estatutuetan eta legeria aplikagarriari aurreikusitako bateraezintasun-erregimena, (iii) oro har, legean edo estatutuetan kargua betetzeko eskatutako beste edozein betekizun, eta (iv) gainerako lanbide-betebeharrak, baita, hala badagokio, Fundazioaren interesekin eta funtzio sozialaren betetzearekin dituzten zuzeneko edo zeharkako gatazka-egoerei buruzkoa ere.

Batzordearen funtzionamendu-erregimena Patronatuak onartu beharreko Erregelamenduan ezarriko da.

3. ATALA. BESTE ORGANO BATZUK

33. artikulua. Aholku Batzordeak eta Ohorezko Patronoak.

Patronatuak, bidezkotzat hartzen badu, Fundazioaren jardueraren berezko eremuetan kalifikatuta dauden teknikari edo pertsonen osatutako Aholku Batzorde bat edo gehiago izendatu ahal izango ditu, askatasun osoz finkatzen duen kide kopuruarekin. Kideak Patronatuko kideen artean aukeratu ahal izango ditu. Aholku Batzordeen helburua Patronatua aholkatzea izango da, eta fundazio-helburuak ahalik eta hobekien betetzen saiatuko da.

Patronatuak Aholku Batzordea (edo Batzordeak) osatzen duten pertsonak ordeztu ahal izango ditu bidezkotzat hartzen duenean, eta Batzordearen sorrerari buruzko erabakia ezeztatu ahal izango du noiznahi.

Aholku Batzordearen jarduera ez da ezinbestez lotuta egongo erabakiak hartzeari, eta kideek ordainsariak jaso ahal izango dituzte.

Era berean, Patronatuak "Ohorezko Patronoak" izendatu ahal izango ditu. Ohoregarri hori jasotzeko merezimenduak egiten dituzten Patronatuak hautatutako pertsonak izendatuko dituzte Banku Fundazioaren "Ohorezko Patronoaren" ohorezko tituluarekin, dela ekarpen nabarmena egin dutelako azken urteetan fundazioaren helburua lortzeko, dela fundazioarekiko egin duten ekarpen pertsonalak garrantzi handia izan duelako.

Ohorezko Patronoak Patronatuaren bileretara/bilkuretara bertaratu ahal izango dira eta bertan hitz egiteko eta aztertzen diren gaiei buruzko iritzia emateko eskubidea izango dute, baina ez dute inolako kasutan boto-eskubiderik izango. Edonola ere, Ohorezko Patronoak Patronatuko gainerako kideen jardun-arau berberetara lotuta egongo dira, Fundazioaren Estatutuetak 45. artikuluan eta ondorengoetan ezarritako dagoenaren arabera.

Ohorezko Patronoaren kargua doakoa izango da eta biziarteko izaera izango du, salbu eta Patronatuak kargugabetzea erabakitzen badu edo Ohorezko Patronoak Zuzenbidean onartutako edozein bitarteko baliatuz dimisioa aurkezten badu.

IV. KAPITULUA

ERREGIMEN EKONOMIKOA

1. ATALA. ONDAREA ETA ERRENTAK

34. artikulua. Fundazio-zuzkidura.

Fundazioaren eskrituran zuzkidura-ondasuntzat eta zuzkidura-eskubidetzat esanbidez hartutakoek osatzen dute Fundazioaren hasierako zuzkidura.

Edozein tituluren bidez eskuratzen diren eta ekarlearen xedapenez edo Patronatuaren erabakiz zuzkidura-ondasuntzat esanbidez hartzen diren ondasunak eta eskubideak gaineratuko zaizkio hasierako zuzkidura horri.

Halaber, urteko diru-sarreretan sortzen diren soberakinak Fundazioaren zuzkidura handitzeko erabili ahal izango dira, legean eta Estatutu hauetan aurreikusitakoari jarraiki.

35. artikulua. Fundazioaren ondarea.

Fundazioaren ondarea balioespen ekonomikoaren xede izan daitezkeen eta edonon kokatuta egon daitezkeen ondasun, eskubide eta betebeharrak orok osatu ahal izango dute, eta legez xedatutakoak izango dira muga bakarrik.

Patronatuari dagokio ondarea administratu eta antolatzea, Estatutu hauetan ezarritako moduan eta legeria aplikagarrian xedatutakoari jarraiki.

36. artikulua. Ondasun eta eskubideen titulartasuna.

Fundazioa bere ondarea osatzen duten ondasun eta eskubide guztien titularra izango da, eta ondasun eta eskubide horiek Fundazioaren urteko inbentarioan jasoarazi beharko dira.

Patronatuak Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak Fundazioaren izenean bidezko erregistro publikoetan inskribatzea sustatuko du bere erantzukizunpean.

37. artikulua. Besterentzea eta karga.

Patronatuak Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen besterentzea eta karga erabaki ahal izango du Fundazioaren interesetarako komenigarria denean, indarrean dagoen legerian aurreikusitako betekizunei jarraiki.

Besterentzeak edo kargak Jabetza Erregistroan edo xedea kontuan hartuta bidezkoa den erregistro publikoan inskribatuko dira, eta Fundazioaren inbentarioan islatuko dira.

38. artikulua. Herentziak eta dohaintzak.

Patronatuak dohaintzak, herentziak eta legatuak onartu ahal izango ditu, legeria aplikagarriari jarraiki.

Fundazioak herentzien onarpena inbentario-onurara egiten duela ulertuko da. Patronoak Kode Zibilararen 1024. artikuluan adierazitako egintzei lotutako inbentario-onuraren galeraren erantzuleak izango dira Fundazioaren aurrean.

Karga duten legatuak edo kostu bidezko edo ordainsari gisako dohaintzak onartzen badira edota kargarik gabeko herentzia, dohaintza edo legatuei uko egiten bazaie, Patronatuak Babesletzari jakinarazi beharko dio hurrengo hamar (10) egun balioduneko gehieneko epean. Patronatuaren egintzak Fundazioarentzat kaltegarriak badira, Babesletzak bidezkoak diren erantzukizun-ekintzak egin ahal izango ditu patronoen aurka.

39. artikulua. Errentak eta diru-sarrerak.

Honako hauek hartuko dira Fundazioaren errenta eta diru-sarreratzat:

- a) Ondare propioaren errendimenduak.
- b) Akzioen, obligazioen eta gainerako titulu-baloreen salmentaren emaitza (Fundazioak akzioak harpidetzeko erabiltzen ez dituen eskubideak barnean hartuta).
- c) Diru-laguntzak, dohaintzak, herentziak eta legatuak.
- d) Fundazioak bere zerbitzu eta jarduerengatik jasotzen dituen zenbatekoak.
- e) Fundazioak Espainian eta atzerrian edozein entitate publiko edo pribatutatik lortzen dituen finantza-baliabideak.
- f) Biltzen diren eta Fundazioaren helburuak betetzera zuzen daitezkeen funtsak.
- g) Fundazioak bere ondarearen titular gisa lortzen duen beste edozein baliabide, hala nola jabetza intelektual edo industrialeko eskubideak edo antzekoak.

Helburu espezifiko baterako jasotzen diren dohaintzak edo diru-laguntzak eta horiek sortzen dituzten errentak, hala badagokio, helburu espezifiko horri lotutako jarduera zehatzerako erabiliko dira.

2. ATALA. KONTABILITATEA ETA JARDUN PLANA

40. artikulua. Ekitaldi ekonomikoa, kontabilitatea eta auditoria.

Ekitaldi soziala urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean hasi eta hurrengo abenduaren 31an amaituko da, ekitaldi-itxieraren eguna.

Salbuespen gisa, lehen ekitaldiak Fundazioaren eskritura publikoa egiten denetik aribideko urteko abenduaren 31ra arte iraungo du.

Fundazioak kontabilitate txukuna eta bere jarduerara egokitua eramango du, eta egin diren eragiketen jarraipen kronologikoa egiteko aukera eman beharko du kontabilitate horrek. Horretarako, kasu bakoitzean banku-fundazioei aplikatu beharreko araudiari jarraituko zaio.

Ekitaldi bakoitza amaitu eta sei (6) hilabeteko epean, Patronatuak ekitaldi horri dagozkion Fundazioaren urteko kontuak onartu beharko ditu. Kontu horiek garbi idatzi beharko dira, eta Fundazioaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi leiala agertu beharko dute. Gainera, honako dokumentu hauek bildu beharko dituzte:

a) Fundazioaren egoera ekonomikoa, finantza-egoera eta ondare-egoera agertuko duten inbentarioa, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

b) Fundazioaren jarduerak eta kudeaketa ekonomikoa (finantzaketa-koadroa barnean hartuta) eta fundazio-helburuen betetze-maila azalduko dituen memoria. Memoriak balantzean eta emaitzen kontuan bildutako informazioa osatu, zabaldu eta aztertu beharko du, eta, gainera, gobernu, zuzendaritza eta ordezkartzako organoetan gertatzen diren ondare-aldaketak zehaztuko ditu eta ekitaldiaren barruan helburuak betetzeko egindako jardueri eta onartutako aurrekontuaren eta jardun-planaren betetze-mailari buruzko informazioa eman beharko du. Halaber, erabilitako baliabideak, horien jatorria, egindako jardun bakoitzaren onuradunen kopurua, helburu horietarako beste erakunde batzuekin egindako hitzarmenak, eta Estatutu hauetan errenta eta diru-sarreraren erabilerari dagokionez ezarritako arauen betetze-maila adierazi beharko dira memorian.

Patronatuak, halaber, aurreko urteko diru-sarreraren eta gastuen likidazioa egingo du.

Fundazioaren urteko kontuen kanpoko auditoria egingo da.

41. artikulua. Aurrekontua eta jardun-plana.

Ekitaldi bakoitzeko azken hiru (3) hilabeteetan, Fundazioaren Patronatuak hurrengo urteko aurrekontua landu eta Babesletzari igorriko dio, azalpen-memoria batekin eta aurreikusitakoaren arabera hurrengo ekitaldian garatuko diren helburuak eta jarduerak islatuko dituen jardun-plan batekin batera.

42. artikulua. Finantza-plana.

Patronatuak, eratu eta hiru (3) hilabeteko gehieneko epean (eta, handik aurrera, urtean behin), finantza-plan bat igorriko dio Espainiako Bankuari, onar dezan. Plan horretan,

Kutxabankek izan ditzakeen kapital-premiei aurre egiteko modua eta finantza-erakundeetan inbertitzeko estrategiaren oinarritzko irizpideak finkatuko dira.

43. artikulua. Finantza-partaidetza kudeatzeko protokoloa.

Patronatuak finantza-partaidetza kudeatzeko protokolo bat landuko du. Protokolo horrek honako alderdi hauek arautuko ditu gutxienez:

- a) Fundazioak Kutxabanken duen partaidetza kudeatzeko oinarritzko irizpide estrategikoak.
- b) Fundazioaren Patronatuaren eta Kutxabankekko gobernu-organoen arteko harremanak; besteak beste, kontseilariak aukeratzeko irizpideak adieraziko dira.
- c) Fundazioaren eta Kutxabanken artean eragiketak egiteko irizpide orokorrak, eta interes-gatazkak saihesteko aurreikusitako mekanismoak.
- d) Espainiako Bankuak finantza-partaidetza kudeatzeko protokoloaren gutxienezko edukia finkatzeko duen eskumena betez adierazten dituen beste guztiak.

Finantza-partaidetza kudeatzeko protokoloa Espainiako Bankuari igorriko zaio erakundea Banku Fundazio denetik bi (2) hilabeteko epean. Onartu ondoren, Fundazioaren webgunean, Kutxabanken webgunean eta dagokion gertakari garrantzitsuen bidez emango da argitara.

V. KAPITULUA

GOBERNU ONA: ETIKA ETA GARDENTASUNA

44. artikulua. Patronoen betebeharrak.

Patronatua kide anitzekoa izango da, eta kideek ordezkaritza leial baten ardurarekin beteko dute kargua. Gainera, beren karguaren berezko funtzioak bete beharko dituzte, honako hauek nagusiki:

- a) Karguaren funtzioetan aktiboki parte-hartzea. Horretarako, aztertzeke aurkezten zaion gai bakoitzari buruz beharrezkoa den informazioa izango dute. Presidenteari eta idazkariari dagokie informatzeko eskubidearen eta betebeharraren betetzea zaintzea.
- b) Patronatuaren eta, hala badagokio, batzordeen bileretara joatea, baita Fundazioaren interesean deitutako beste batzuetara ere.

c) Patronatuak edo Patronatuko presidenteak Fundazioaren jarduerak egiteko eta Patronatuak hartutako erabakiak betearazteko agintzen dien edozein zeregin egitea.

d) Karguaren berezko funtzioak betetzean ezagutzen duten eta publikoa ez den informazio ororen sekretua gordetzea, eta informazio hori norberaren edo hirugarrenen onurarako ez erabiltzea, hirugarrenei ez helaraztea eta ez zabaltzea; nolana ere, legez eskatzen denean informazioa emateko betebeharra izango da.

45. artikulua. Jarduteko printzipioak eta arauak.

Fundazioak honako betebeharrak izango ditu:

a) Ondarea eta haren errentak fundazio-helburuetara bideratzea, Estatutu hauei eta legeei jarraiki.

b) Helburu eta jarduerari buruzko informazio nahikoa ematea, balizko onuradunek eta gainerako interesdunek horien berri izan dezaten.

c) Onuradunak finkatzean inpartzialtasunari eta diskriminaziorik ezari lotutako irizpideekin jokatzeko.

Nolana ere, patronoen jarduerari honako arau hauek eragotziak izango dira:

a) Beren funtzioak Fundazioaren onura eskusiborako betetzea, Estatutu hauek zehaztuta dauden Fundazioaren helburuei jarraiki.

b) Nolanahi ere, Fundazioaren interesarekiko arduraz eta leialtasunez, eta, beraz, eraginpean har ditzaketen beste interes batzuekiko independentzia osoz eta instrukziorik eta agindurik jaso gabe jardutea. Ildo horretan, patronoek Patronatuari baino ez dizkiote kontuak emango, eta adierazitako ardura- eta leialtasun-betebeharrak ez betetzeagatik Fundazioari kalteak eragin dizkioten jardunen erantzuleak izango dira Fundazioaren aurrean.

c) Beren funtzioak zintzotasunez, gardentasunez, fede onez, inpartzialtasun- eta berdintasun-printzipioak errespetatuz, interes orokorrerako jardunez eta adierazitako printzipioen aurkako jokabiderik agertu gabe betetzea. Ez dira inplikaturik beren funtzioekin bateraezinak diren egoera, jarduerari edo interesetan, eta ez dute esku hartuko beren objektibotasunean eragina izan dezakeen ezein gai, akordio edo erabakitan edota interes-gatazka batean sartuta daudenean.

d) Gaiak kudeatzean, eraginkortasun, ekonomia eta efizientziaren printzipioei jarraiki eta interes orokorrari erantzuteko helburuarekin jardutea.

e) Fundazioari, presidenteari bitartez, beren lanbide-egoeran izandako edozein aldaketaren edo beren funtzioak normal betetzea eragotz dezakeen beste edozein aldaketaren berri ematea.

f) Fundazioaren negozio-aukera bat norberaren zuzeneko edo zeharkako onurarako ez baliatzea, inbertsioa edo eragiketa aurretik Fundazioari eskaintzen zaionean, Fundazioak patronoaren eraginik gabe ustiatzeari uko egiten dionean eta patronoak eragiketa baliatzeko aukera Patronatuak baimentzen duenean izan ezik.

g) Organo eskudunei ezagutzen duten edozein jardun irregular jakinaraztea.

h) Beren kargua betetzean ohiko edo kortesiazko usadioetatik eta usadio sozialetatik kanpoko oparirik ez ematea eta onartzea, ezta mesede edo zerbitzurik ere, beren funtzioak askatasun eta independentziaz betetzea baldintzatzeko moduko baldintza abantailatsuetan. Erakunde-garrantzi handiagoa duten oparien kasuan, Fundazioaren ondareari gaineratuko zaizkio.

i) Fundazioan duten tokia abantaila pertsonalak edo materialak lortzeko ez baliatzea.

46. artikulua. Interes-gatazka.

Patronatuko kideek idazkariari jakinarazi beharko dizkiote Fundazioarekin eta Kutxabankekin zerikusia duten eta norbera edo lotutako pertsonak eraginpean hartzen dituzten interes-gatazka guztiak, eta ez dute jardungo gatazka-egoera horiei lotutako akordio edo erabakietan.

Ondorio horietarako, patronoaren interes pertsonalak eta Fundazioaren interesek zuzenean edo zeharka talka egiten dutenean ulertuko da interes-gatazka dagoela. Era berean, egoerak patronoa eraginpean hartzen duenean sortuko da patronoaren interes pertsonala, eta honako hauek izango dira patronoei lotutako pertsonak:

a) Patronoaren ezkontidea edo antzeko afektibitate-harremana duen pertsona, eta odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasunezko bigarren mailara arteko senideak.

b) Patronoak edo hari lotutako pertsonak beren kabuz edo haien ordez jarritako pertsona baten bidez partaidetza duten sozietate edo erakundeak, ehunekoia edozein izanik ere.

c) Patronoak edo hari lotutako edozein pertsonak bere kabuz edo haren ordez jarritako pertsona baten bidez administrazio edo zuzendaritzako kargu bat betetzen dueneko sozietate edo erakundeak, edota edozein arrazoirengatik kargu-sariak ematen dizkiotenak.

Artikulu honetan adierazitako pertsonak Fundazioarekin eragiketarako egiteko, beharrezkoa izango da horien premia behar bezala egiaztatzea eta Fundazioaren interesak patronoaren edo parekatutako pertsonaren interesen gainetik jartzea.

Interes-gatazkaren kasuan, Patronatuari dagokio eragiketarako onartzea, eta Auditoria eta Kontrol Batzordeak (baldin badago) aldeko txostena egin ondoren eta Patronatuko kideen gehiengo osoarekin onartuko ditu, Fundazioarekin duten interes-gatazka dela-eta bozkatu ezin dutenak zenbatu gabe. Bileraren aktan, patronoek zer bozkatu duten jasoarazi beharko

da. Onarpenari buruzko erabaki hori Babesletzari jakinaraziko zaio berehala.

47. artikulua. Patronoen erantzukizuna.

Patronoek solidarioki erantzungo dute Fundazioaren aurrean, legearen edo Estatutuen aurkako edota kargua betetzean agertu behar duten ardurarik gabe egindako egintzen ondorioz eragiten dituzten kalte-galerei dagokienez.

Salbuetsita geratuko dira erabakiaren aurkako botoa eman dutenak, eta erabakia hartzen eta betearazten esku hartu ez dutela eta erabakiaren berri izan ez zutela edota, erabakiaren berri izanik ere, kaltea saihesteko ahalegin guztiak egin zituztela edo, behintzat, erabakiaren aurka agertu zirela frogatzen dutenak.

48. artikulua. Publizitatea eta gardentasuna.

Aurrekontuak, jardun-planak, kontuei buruzko dokumentazioa (memoria eta kontu-auditoria barne) eta, hala badagokio, gobernu korporatiboaren urteko txostena publikoak izango dira eta erakundearen webgunean argitaratuko dira.

Patronatuko presidenteak eta idazkariak, nolana ere, argitara eman behar diren akordio edo erabakiei publizitatea emateko modua xedatuko dute, araudi aplikagarriari jarraiki eta Fundazioaren interesa zainduz.

Fundazioak, bere kontratu-jardueran, publizitate, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioei jarraituko die, kontratuaren izaera dela-eta komeni ez denean eta hori behar bezala justifikatzen denean izan ezik.

49. artikulua. Gobernu Korporatiboaren urteko txostena.

Fundazioak, nahitaezkoa denean, gobernu korporatiboaren urteko txosten bat emango du argitara. Txosten horren edukia eta egitura araudi aplikagarriak xedatzen duenera egokituko da.

Gobernu korporatiboaren urteko txostena Babesletzari jakinaraziko zaio, dokumentuaren kopia erantsita. Babesletzak txostenaren kopia igorriko die erakunde eta agintari eskudunei.

Gobernu korporatiboaren txostenak honako eduki hau izango du gutxienez:

- a) Gobernu-organoak: egitura, osaera eta funtzionamendua; eta izendapenei lotutako politikaren finkapena.
- b) Banku-erakundeko inbertsio-politika: ekitaldiko akzio-partaidetzari lotutako eskubideen erabileraren deskribapena.
- c) Beste inbertsio batzuk: jardunak eta jarraitutako politika.

- d) Ordainsari-politika: ordainsari-politikaren ondorioz arrisku handiegiak hartu behar ez izateko mekanismoak, eta zuzendaritza nagusiak jasotako ordainsariak.
- e) Lotutako eragiketak: banku-erakundearekin eta lotutako beste erakunde batzuekin egindako eragiketen azalpena.
- f) Interes-gatazkei lotutako politika.
- g) Garatutako gizarte-ekintzaren jarduera.

VI. KAPITULUA

BAT-EGITEA, AZKENTZEA ETA LIKIDAZIOA

50. artikulua. Xurgapena eta bat-egitea.

Fundazioa beste fundazio batzuk xurgatu ahal izango ditu, edo horiekin bat egin ahal izango du, betiere Fundazioaren interesak hori aholkatzen badu, legeria aplikagarrian aurreikusitakoari jarraiki.

Xurgapena, bat-egitea eta beste edozein aldaketa estruktural Patronatuko kideen bi herenen (2/3) aldeko botoekin onartu beharko dira gutxienez, proposatutako eragiketari buruzko txostena edo azalpen-memoria egin ondoren, legez bidezkoak diren baimenak eta komunikazioak aparte utzi gabe. Aurrekoa gorabehera, agindu-indarrezko arau batek idatz-zati honetan aipatzen diren erabakiak hartzea dakarren edozein betebeharrak ezartzen badu, erabakiak arau horretan adierazitako gehiengoekin hartuko dira, eta arauan aurreikuspen espeziifikorik ez badago, gehiengo soilez.

Xurgapena eta bat-egitea Babesletzak baimendu beharko ditu, eta, horren ondoren, eskritura publikoan formalizatu eta bidezko Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

51. artikulua. Desegitea.

Patronatuak Fundazioa desegitea erabaki ahal izango du Fundazioaren helburua bete dela ikusten duenean edota helburu hori lortzea ezinezkoa denean. Nolanahi ere, legeetan ezarritako beste edozein arazoirengatik desegingo da Fundazioa. Patronatuak erabaki hori hartzeko, Patronatuko kideen bi herenen aldeko botoak beharko dira, eta erabakia Babesletzak baimendu beharko du.

52. artikulua. Likidazioa eta geldikinaren esleipena.

Fundazioen bat-egitearen kasuan izan ezik, Fundazioa desegiteko erabakiak edo, hala badagokio, ebazpen judizialak amaiera emango die Fundazioaren ohiko jardunei, eta hasiera emango die likidazio-eragiketeki. Patronatuak osatuko duen Likidazio Batzordeak egingo ditu eragiketa horiek.

Horretarako, desegitea erabaki ondoren, Patronatua Likidazio Batzorde gisa eratuko da, eta, Babesletzaren kontrolpean, ondasunak besterentzeko eta bete gabe dauden betebeharrak guztiak betetzeko ahalmen nahikoak izango ditu. Geldikinik izanez gero, Kutxatik etorritako ongintza-jarduera soziala kudeatzen duenari edota desegindako Fundazioak zituenen antzeko interes orokorreko helburuak dituzten eta jarduteko lurralde-eremua nagusiki Gipuzkoako Lurralde Historikoan duten beste erakunde batzuei emango zaie, Patronatuak aukeratzen duenaren arabera.

VII. KAPITULUA

BABESLETZA ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROA

53. artikulua. Babesletza.

Fundazio hau Babesletzaren tutoretzapean, fiskalizaziopean eta kontrolpean egongo da, indarrean dagoen araudian aurreikusitakoaren arabera.

54. artikulua. Fundazioen Erregistroa.

Fundazio honen eraketa, baita legeak hala agintzen dituen Fundazioaren egintza edo negozio juridiko guztiak ere, indarrean dagoen araudiaren arabera eskuduna den Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.

XEDAPEN IRAGANKORRA. LEHEN PATRONATUAREN IZENDAPENA.

Aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legearen Lehen Xedapen Iragankorrean aurreikusitakoari jarraiki, Administrazio Kontseiluak, Kutxako gobernu-organo gisa aplikagarria zaion araudiari jarraiki, Fundazioaren lehen Patronatuaren izendapena proposatuko dio Batzar Orokorrari.

Kutxako Batzar Orokorrak Fundazioaren Estatutuak onartu eta Patronatua lehen aldiz izendatzen duenean, Batzarrak beren ordezkariak hautatzeko eskatuko die berezko patronoei, Estatutu hauen 15. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

Estatutu hauek FUNDACION BANCARIA KUTXA – KUTXA BANKU FUNDAZIOAk 2016ko ekainaren 24ko Patronatu-Batzordean eta EUSKO JAURLARITZAKO Herri Administrazio eta Justiziako Sailburuak 2016ko irailaren 19an emandako Aginduz onartuak izan dira.